

A atala
Euskadiko zerga-harremanak
eta finantzaketa sistemak

Parte A
Relaciones tributarias y sistema
de financiación del País Vasco

I. kapitulua

Ekonomia Ituna

Capítulo I

El Concierto Económico

1. SORRERA ETA BILAKAERA HISTORIKOA

Ekonomia Ituna, historian, euskal foruerregimenaren funtsezko araua izanik, Estatuaren eta Euskal Herriaren arteko harremanak antolatzeko elementua izan da.

Euskal Herriko lehen Ekonomia Ituntzat jotzen dute 1878ko otsailaren 28ko Errege Dekretua, eta zortzi urtez iraun zuen. 1876ko uztailaren 21eko Legea (Foruak indargabetzekoa) eta 1877ko azaroaren 13ko Dekretua (Ekonomia Itunaren oinariak ezarri zituena) aldarrikatu ostean abiatutako negoziazio prozesuaren emaitza izan zen, lurrealde historiko bakoitzak Estatuari urte horretan ordaindu beharreko kuota orokorrak ezarri baitziren.

1. ORIGEN Y EVOLUCIÓN HISTÓRICA

Históricamente, constituyendo una parte esencial de la foralidad vasca, el Concierto Económico ha sido un elemento vertebrador de las relaciones entre el Estado y el País Vasco.

El Real Decreto de 28 de febrero de 1878 es considerado el primer Concierto Económico del País Vasco, con una vigencia de ocho años. Fue fruto del proceso negociador abierto tras la promulgación de la Ley de 21 de julio de 1876, en la que se abolieron los Fueros, y del Decreto de 13 de noviembre de 1877, que sentó las bases del régimen económico de concierto al establecer unas cuotas globales que cada uno de los Territorios Históricos había de satisfacer al Estado en ese año.

Gero, 1887ko Aurrekontu Orokoren Legeko 14. artikuluaren bidez, beste Ekonomia Itun bat onartu zen, hura ere zortzi urterako. Horren ondoren etorri ziren 1894ko otsailaren 1eko Ituna, 1906ko abenduaren 13koa eta 1925eko ekainaren 9koa; guztira, 25 urteko indarraldia izan zuten.

Hala ere, 1937an diktadura frankistak indarrik gabe utzi zuen Bizkaia eta Gipuzkoarako hitzartutako zerga-araudia, eta horregatik, seigarren Ekonomia Ituna, 1952ko otsailaren 29koa, Arabarako bakarrik eman zen. Itun horren ondoren etorri zen, trantsizio politikoaren garaian, 1976ko azaroaren 26koa.

1978ko Konstituzioa eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez, Euskal Herriaren Autonomía Estatutua onartu ondoren, 12/1981 Legea, maiatzaren 13koa, hitzartu zen, zeinaren bidez Euskal Autonomía Erkidegoarekin Ekonomia Ituna onartu baitzen, 20 urteko indarraldiarekin.

Azkenik, pilatutako esperientziarekin, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez, beste Ekonomia Itun bat onartu zen, epe mugagabea zeukala.

2. ESPARRU JURIDIKOA

Estatuaren eta Euskadiaren arteko finantza- eta zerga-harreman bereziak arautzen ditu Ekonomia Itunak. Alde batetik, Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria du oinarri; horren bitartez Konstituzioak babesia eta errespetua ematen dizkie foru-lurraldeen eskubide historikoei. Bestetik, Autonomía Estatutuaren III. tituluan oianarritzen da, zeinak aitortzen duen lurralde historikoetako instituzio eskumendunen arautzeko ahalmena, horiek, beren esparruan, zerga-erregimena mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dutela berresten baitu.

Foru-erakundeek aitortua dute zerga-ahalmena, eta hori da Euskadiko zerga-sistemaren berezitasunaren funtsezko osagaia. Hala, Estatuaren eta Euskadiaren arteko finantza- eta zerga-harremanak behar bezala antolatzea eskatzen du sistema horrek. Ildo horretatik, Autonomía Estatutuak arautzen du harremanok tradizionozko foru-sistemaren bitartez

Posteriormente, mediante el artículo 14 de la Ley de Presupuestos Generales de 1887 se aprobó un nuevo Concierto Económico, también vigente para ocho años. A éste le siguieron los Conciertos de 1 de febrero de 1894, de 13 de diciembre de 1906 y de 9 de junio de 1925, con una vigencia de 25 años.

Sin embargo, en 1937 la dictadura franquista dejó sin efecto el régimen tributario concertado de Bizkaia y Gipuzkoa, lo que implicó que el sexto Concierto Económico, de 29 de febrero de 1952, se dictara exclusivamente para Álava. A este Concierto le sucedió, ya en la transición política, el de 26 de noviembre de 1976.

Después de la aprobación de la Constitución de 1978 y del Estatuto de Autonomía para el País Vasco- Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre- la Ley 12/1981, de 13 de mayo, aprobó el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, con una vigencia de 20 años.

Por último, con la aportación de la experiencia acumulada, mediante la Ley 12/2002, de 23 de mayo, se aprobó un nuevo Concierto Económico con carácter indefinido.

2. MARCO JURÍDICO

El Concierto Económico regula las singulares relaciones tributarias y financieras entre el Estado y el País Vasco. Se fundamenta en la disposición adicional primera de la Constitución, que ampara y respeta los derechos históricos de los territorios forales y en el Título III del Estatuto de Autonomía, que reconoce la capacidad normativa de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos para mantener, establecer y regular dentro de su territorio su propio sistema tributario.

El reconocimiento de la potestad tributaria foral, rasgo esencial de la especialidad vasca, implica la necesaria adecuación y ordenamiento de las relaciones de carácter tributario y financiero entre el Estado y el País Vasco, estableciéndose en el propio Estatuto que estas relaciones se regularán mediante el sistema foral tradicional de Concierto

araupetu behar direla, hots, Ekonomia Itunen bitartez.

Beraz, lurralte historikoetako instituzio eskumendunen zerga-ahalmena aitortzen da, haien esparruan zerga-erregimena mantendu, ezarri eta arautzeko. Hori guztia Estatuaren zerga-egitura orokorrari jarraituz, Ekonomia Itunak berak Estatuarekin koordinazio, harmonizazio fiskal eta lankidetzarako dituen arauak betez eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan helburu horrekin Eusko Legebiltzarrak arautzen duenari lotuz egin behar da.

Halaber, foru-aldundiek eskumena dute beren lurralte historikoan zerga guztien ordainarazi, kudeatu, likidatu, bildu eta ikuskatzeko; hala ere, horren salbuespen dira importazio-eskubideak eta importazio-kargak zerga berezieta eta balio erantsiaren gaineko zergan. Hori guztia Estatuareniko lankidetzaren baitan eta Estatuaren goi-ikuskapeneko eskumenei eutsiz egingo da. Azken finean, zerga-esparruan arautzeko eta kudeatzeko ahalmen osoa aitortzen zaie lurralte historikoetako erakunde eskumendunei; hori horrela, fase guztietan eta, betiere, koordinazio, harmonizazio eta lankidetza fiskalaren gaineko arauak errespetatzen dira.

Bestalde, finantza-harremanak Estatuari ordaindu beharreko kupoaren bidez zehazten dira. Horrela, Estatutuan adierazten da EAEk Estatuari egingo dion ekarpena kopuru orokor bat izango dela, eta Autonomia Erkidegoak bere gain hartu gabeko Estatu-kargen kontribuzio gisa lurralte bakoitzak emandako kopuruez osatuko dela. Estatuko eta EAEko erakundeetako ordezkariek osatutako batzorde parekide batek zehaztuko ditu kupo orokorra eta lurralte historiko bakoitzak ordaindu beharrekoa. Horrela adostutako kupo legez onartu beharko da, Ekonomia Itunean finkatutako maiztasunarekin. Nolanahi ere, urteka gaurkotu daiteke, Itunean adieraziko den prozeduraren bidez.

Era berean, Estatutuan bertan xedatzen da Itunaren erregimena Konstituzioan araututako elkartasun printzipioarekin bat

Económico.

Se reconoce, por tanto, la capacidad de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos para mantener, establecer y regular dentro de su territorio el régimen tributario, atendiendo a la estructura general impositiva del Estado, a las normas que para la coordinación, armonización fiscal y colaboración con el Estado contenga el propio Concierto, y a las que dicte el Parlamento Vasco para estos fines dentro de la Comunidad Autónoma.

Además, se establece la capacidad de cada Diputación Foral, dentro de su Territorio Histórico, para exaccionar, gestionar, liquidar, recaudar e inspeccionar todos los impuestos, salvo los derechos de importación y los gravámenes a la importación en los Impuestos Especiales y en el Impuesto sobre el Valor Añadido, sin perjuicio de la colaboración con el Estado y su alta inspección. En definitiva, se reconoce la plena capacidad normativa y de gestión en el ámbito tributario de las Instituciones competentes de cada Territorio Histórico en todas sus fases, respetando las normas sobre coordinación, armonización y colaboración fiscal.

Por otra parte, las relaciones financieras se instrumentan mediante el cupo a pagar al Estado. Así, se establece en el Estatuto que la aportación del País Vasco al Estado consistirá en un cupo global, integrado por los correspondientes a cada uno de sus Territorios, como contribución a todas las cargas del Estado que no asuma la Comunidad Autónoma. Del mismo modo, se dice que la cuantificación del cupo global y los correspondientes a cada Territorio Histórico se realizará en el marco de una comisión paritaria Estado-País Vasco. El cupo, así acordado, deberá aprobarse por Ley, con la periodicidad que se fije en el Concierto, sin perjuicio de su actualización anual por el procedimiento que se establezca.

Asimismo, en el Estatuto se dispone que el régimen de Concierto se aplicará de acuerdo al principio constitucional de solidaridad.

aplikatuko dela.

Autonomia Estatutuak xedatutakoa betez, Ekonomia Itunak bi kapitulu nagusi ditu:

I. kapituluauan tributuei buruzko alderdiak jasotzen dira, eta horrela, zerga bakoitzaz ituntzeko modua ezartzen da. Oinarrioinarrian, zerga bakoitzaren loturapuntuak zehazten dira, foru-ogasunek eta Estatuko Ogasunek dituzten araugintza-kudeaketa- eta ikuskapena-eskumenak mugatzeko.

II. kapituluak, kupoari eta finantza-harremanei dagokienak, bi atal ditu: arau orokorrak eta kupoia zehazteko metodologia. Bereganatu gabeko eskumenengatik, Estatuko karga orokorreai EAEK nola erantzun behar dien ezartzen du kapituluak. Berezitasun hori finantza-fluxu batean gauzatzen da, Estatuari ordaindu beharreko kupoaren bidez.

Gainera, 2002ko Itunak III. Kapitulua du, Ekonomia Itunaren Batzordeei eta Arbitraje Batzordeari buruzkoa. Kapitulu horren bidez, administrazioen arteko lankidetza-printzipioa nabarmentzen da eta Ekonomia Ituna aplikatzerakoan segurtasun juridiko handiagoa lortzeko prozedurak indartzen dira.

Ekonomia Itunak aurreikusten du, bigarren xedapen gehigarrian, administrazioek adostu egin behar dituztela Itunen balizko aldaketak eta Estatuaren tributu-sistemaren aldaketetara egokitzea, betiere tributuak ituntzeari eragiten badiote. Itunak ere zehazten du adosteko beharra egongo dela araugintza- eskumenen banaketa aldatzen bada eta aldaketa horrek zeharkako zergapetzeari eragiten badio, edo zerga edo konturako ordainketa beririk sortzen bada.

3. SISTEMAREN EZAUGARRIAK

Aurrez adierazitakoa kontuan hartuz gero, Ekonomia Itunaren sistemaren funtsezko elementuak ondoriozta daitezke. Horrela, honako hauek dira, labur adierazita, itun-sistemaren oinarrizko ezaugariak:

El Concierto Económico se articula, conforme a lo dispuesto en el Estatuto de Autonomía, en dos grandes capítulos:

En el Capítulo I se recogen los aspectos relativos a los tributos, estableciéndose la concertación para cada uno de los impuestos. Básicamente, se fijan los puntos de conexión para delimitar las competencias normativas, de gestión e inspección de las Haciendas Forales y la Hacienda del Estado.

El Capítulo II, referido al cupo y las relaciones financieras, comprende dos secciones: normas generales y metodología de determinación del cupo. Se establece la forma en que el País Vasco debe contribuir al sostenimiento de las cargas generales del Estado por competencias no asumidas. Esta singularidad se materializa en un flujo financiero, el cupo a abonar al Estado.

El Concierto aprobado en 2002 incluye también un Capítulo III dedicado a las Comisiones y la Junta Arbitral. Se subraya de este modo el principio de colaboración entre Administraciones y se refuerzan los procedimientos orientados a conseguir una mayor seguridad jurídica en la aplicación del Concierto Económico.

El Concierto prevé, en la disposición adicional segunda, la necesidad del común acuerdo entre Administraciones para su modificación y adaptación a los cambios del sistema tributario del Estado que afecten a la concertación de los tributos. También prevé la necesidad de adaptación a aquellos casos en los que se produzca una alteración del reparto de competencias normativas que afecte al ámbito de la imposición indirecta, se crearan nuevas figuras tributarias o pagos a cuenta.

3. CARACTERÍSTICAS DEL SISTEMA

De lo antes expuesto se desprenden los aspectos sustantivos del sistema de Concierto Económico y que pueden resumirse en las siguientes características básicas:

Itundutako sistema.

Hori da sistemaren funtsezko ezaugarrietako bat. Estatuak eta Euskadik, bere eskumenak jorraturik, elkarren arteko harremanetarako arauak adosten dituzte tributuen eta finantzen alorrean. Ekonomia Ituna, beraz, itundutako legea da, eta izaera horixe bera dute haien egokitzeko eta aldatzeko legeek eta kupoaren bost urteko legeek.

Tributu-gaietarako berezko araugintzako ahalmena.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek zergen arloko arauak egiteko ahalmena dute, eta berezko tributu-sistema garatu eta egituratzen dute. Harmonizazio fiskalak eta araugintzako eta ordainarazpeneko lotura-puntuek bermatzen dute tributu-sistemen garapen harmonikoa.

Tributuak kudeatzeko autonomía.

Foru-aldundieie dagokie zerga-ordainarazpenaren eta -kudeaketaren prozedura egitea, fase guztietan. Eskumen hori ez da lagapen baten emaitza; foru-aldundiek berezkoa duten eskumena da, Estatuko Ogasun Publikoak aitortuta dauzkan ahalmen eta eskumen berberak baitauzkate.

Aldebakarreko arriskua.

EAEK bere gain hartu behar ditu Itunaren kudeaketatik eratorritako emaitzak. Estatuak ez du foru-aldundiek lortutako diru-bilketan parte hartzen, eta ez du Autonomía Erkidegoko herri-gastuen estaldura ere bere gain hartzen. Bestalde, Estatuari eman beharreko kontribuzioa, kupoia, ez da EAEn jasotako diru-sarreren arabera kalkulatzen, aldai exogenoen menpe baitago; hala nola, bereganatu gabeko eskumeneei dagozkien gastuak Estatuko Aurrekontu Orokoretan jasotakoak.

4. 2002AN ONARTUTAKO EKONOMIA ITUNA

Sistema paccionado.

Éste es uno de sus rasgos esenciales. El Estado y el País Vasco, en el ejercicio de sus respectivas competencias, acuerdan unas normas de relación en los ámbitos tributario y financiero. El Concierto Económico es, por tanto, una ley paccionada, al igual que sus leyes de adaptación y modificación, y las Leyes Quinquenales de Cupo.

Potestad normativa tributaria propia.

Las Instituciones competentes de los Territorios Históricos disponen de la potestad normativa en materia tributaria, desarrollando y configurando su propio sistema tributario. Las reglas de armonización fiscal y los puntos de conexión para las competencias normativas y exaccionadoras garantizan el desarrollo armónico de los distintos sistemas tributarios.

Autonomía de gestión tributaria.

El procedimiento de exacción y gestión tributaria, en todas sus fases, corresponde a las Diputaciones Forales. Esta potestad no es fruto de una cesión, es una potestad propia de las Diputaciones Forales, quienes ostentan las mismas facultades y prerrogativas que tiene reconocida la Hacienda Pública del Estado.

Riesgo unilateral.

Los resultados derivados de la gestión del Concierto Económico corresponden sólo al País Vasco. Al igual que el Estado no participa de la recaudación obtenida por las Diputaciones Forales, tampoco asume la cobertura de los gastos públicos de la Comunidad Autónoma. Por otra parte, la contribución al Estado, el cupo, no se calcula en función de los ingresos recaudados en el País Vasco, depende de variables exógenas como los gastos en competencias no asumidas de los Presupuestos Generales del Estado.

4. EL CONCIERTO ECONÓMICO APROBADO EN 2002

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak gaur egun indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onartzen du.

Ekonomia Itun berriak, aurreko 20 urteetan jasotako eskarmentuarekin, 1981eko Itunaren printzipio, oinarri eta jarraibideei segitzen die. Hura aplikatzeko garaian segurtasun juridiko handiagoa lortzeko bideak sendotu dira eta epe mugagabea eman zaio, haren iraunkortasuna bermatzea helburu, esparru egonkor batean.

Adostutako testuak hobekuntza nabarmenak ditu eta aurrerapen handia dakar aurreko Itunaren aldean, bai alderdi teknikoen ikuspegitik, bai eskumen-banaketaren ikuspuntutik, bai finantza-harremanen esparruan.

Foru-ogasunen tributu-politikako erabakiak esparru judizialean ez ebazteko mekanismoak lortzea izan da helburu nagusia, eta, horretarako, lankidetza-procedurak indartu dira.

Araugintza Koordinatu eta Ebalutzeko Batzordearen arloan, araugintza-proiektuak elkarri trukatzeko eta ebalutzeko protokolo xehatua ezarri da. Horren helburua da administrazioen arteko akordioa lortzea, ustezko auzibide-gatazkak saihesteko.

Bestalde, Arbitraje Batzordearen osaera arindu da; aurreko Itunean jasotzen zen Auzitegi Goreneko magistratu bati zegokiola Batzorde horretako buru izatea, baina berau ez zen sekula eratu. Egun, ordea, Batzorde horrek hiru kide ditu, itzal handiko adituak tributuen edo ogasunaren arloan.

Ekonomia Itunaren edukiari eta ezarpenari eragiten dieten gaiak jorratzen dituzten nazioarteko organoetan (bereziki, Europar Batasunekoetan) euskal erakundeak egoteari dagokionez, 4. artikuluak jaso zuen Estatuak arbitratuko zituela lankidetza-mekanismoak. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoak zuzenean hartzen du parte ECOFINen lantaldeetan, Estatuko ordezkaritza osatuz, Ekonomia

La Ley 12/2002, de 23 de mayo, aprobó el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, vigente en la actualidad.

El nuevo Concierto, tras la experiencia acumulada en los 20 años anteriores, siguió los mismos principios, bases y directrices que el Concierto de 1981, reforzando los cauces tendentes a conseguir una mayor seguridad jurídica en su aplicación y otorgándole un carácter indefinido, con el objeto de insertarlo en un marco estable que garantizase su continuidad.

El texto acordado incorporó sustanciales mejoras y supuso un avance considerable respecto al anterior, tanto en aspectos de carácter técnico como desde el punto de vista competencial, así como en el ámbito de las relaciones financieras.

Uno de los objetivos prioritarios fue la instrumentación de mecanismos que limitasen la excesiva judicialización a la que se habían sometido las decisiones de política tributaria de las Haciendas Forales, por lo que se reforzaron los procedimientos de colaboración.

En el marco de la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa se estableció un protocolo detallado de intercambio normativo y de evaluación de los respectivos proyectos. Su objetivo es propiciar que las Administraciones alcancen acuerdos que eviten un eventual conflicto judicial.

Por otra parte, se procedió a la simplificación de la composición de la Junta Arbitral, cuya presidencia en el Concierto anterior se había atribuido a un Magistrado del Tribunal Supremo y que nunca llegó a constituirse. Actualmente esta Junta está compuesta por tres miembros de reconocido prestigio en materia tributaria o hacendística.

Respecto a la presencia de las Instituciones vascas en los órganos internacionales, y en especial de la Unión Europea, en los que se tratasen materias que incidieran en el contenido y aplicación del Concierto Económico, el artículo 4 recogió que el Estado arbitrará mecanismos de colaboración. En la actualidad la Comunidad Autónoma del País Vasco participa directamente, integrando la delegación del Estado, en los grupos de

Itunaren arlo materialari loturiko gaiak daudenean tartean.

Ildo horretatik, nabarmendu egin behar da abenduaren 17ko 58/2003 Legean, Tributuen Lege Orokorreko, 1. artikuluak arautzen duela Lege horretan xedatutakoak ez duela bertan behera utziko Ekonomia Itunaren legeak araututakoa bete beharra, Estatuko Administrazioak, 2002ko akordioen alorrean hartutako konpromisoa betez

Finantzen arloan, urratsak egin dira Ekonomia Itunaren izaera orokorra aitortzeko.

Autonomía Estatutuak eta Ekonomia Itunak ez zuten adierazten nola antolatu behar zen EAEko erakundeen finanzajarduera osoa, hain zuen ere, erakunde horien eta Estatuko Ogasunaren arteko harremanei dagokienez. Gainera, zalantzhan jarri izan dira 1906ko abenduren 13ko Errege Dekretuaren 15. artikuluak foru-aldundieei aitortutako ahalmenak, nahiz eta Ituneko hirugarren xedapen gehigarriak berariaz arautzen duen horiek indarrean dirautela.

2002ko Ekonomia Ituneko II. Kapituluari, finanaza-harremanak arautzen dituenari, Estatuaren eta Euskadiaren arteko finanaza-harremanak arautzeako oinarri orokorrak erantsi zaizkio. Finanaza-harremanek printzipio hauek izango dituzte oinarri: autonomía, elkartasuna, coordinación y lankidetza Estatuarerkin aurrekontu-egonkortasun gaietan.

Bestalde, orain arteko Aurrekontu Egonkortasunari buruzko lege guztiak azken xedapenetako bat izan dute, hurrengo testuarekin: "foru-araubideak xedatutakoa betez, aipatutako legeotan xedatutakoa Euskal Autonomía Erkidegoan aplikatzerakoan, Ekonomia Ituneko Legeak xedatutakoari erreparatuko zaio. Honela, indarrean dagoen 2012/2 Legeak, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasuna eta Finanaza Iraunkortasunari buruzkoa, bere hirugarren azken xedapenean jasotzen du aipatutako testua.

trabajo del Ecofin, cuando conozcan asuntos vinculados al ámbito material del Concierto Económico.

Asimismo, atendiendo al compromiso contraido con el Estado, en el marco de los acuerdos de 2002, la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria, en su artículo 1 determina que lo establecido en dicha Ley se entiende sin perjuicio de lo dispuesto en la ley que aprueba el Concierto Económico en vigor.

En materia financiera, el Concierto Económico ha avanzado en el reconocimiento de su carácter general.

No existía referencia alguna, ni en el Estatuto de Autonomía ni en el propio Concierto Económico, al modo en que debía articularse el ejercicio global de la actividad financiera del País Vasco en sus relaciones con la Hacienda del Estado y también se ponía en entredicho la virtualidad en esta materia de las facultades reconocidas a las Diputaciones Forales por el artículo 15 del Real Decreto de 13 de diciembre de 1906, cuya vigencia es declarada de forma expresa por la disposición adicional tercera del Concierto Económico.

El Concierto Económico de 2002 en su Capítulo II, ahora denominado de las relaciones financieras, incorpora los principios generales que deben regir estas relaciones entre el Estado y el País Vasco, basadas en los principios de autonomía, solidaridad, coordinación y colaboración con el Estado en materia de estabilidad presupuestaria.

Así, las distintas leyes aprobadas en materia de estabilidad presupuestaria han recogido disposiciones finales con el siguiente contenido: "En virtud de su régimen foral, la aplicación a la Comunidad Autónoma del País Vasco de lo dispuesto en esta Ley, se entenderá sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley del Concierto Económico". En particular, la vigente Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera recoge dicho texto en la disposición final tercera.

Economia Itunak, bigarren xedapen gehigarrian, ezartzen du hainbat baldintza gertatuz gero, bi administrazioek Ekonomia Ituna egokituko dutela, elkarrekin ados jarrita eta bera onartzeko erabilitako bide bera jarraituz. aldaketa Aurreikusitako baldintzak hurrengoak dira: antolamendu juridikoan berrikuntzaren bat gertatzen bada, eta berrikuntza horrek tributuen itunketari eragiten badio; araugintza-eskumenen banaketa aldatzen bada, eta aldaketak zeharkako zergapetzearen eremuari eragiten badio; eta tributu-figura edo konturako ordainketa berriren bat sortzen bada.

Ildo berean, maiatzaren 23ko 12/2002 Legea onetsiz geroztik zenbait berrikuntza izan ziren, eta horiek Ekonomia Ituna egokitzea ekarri zuten.

Adibidez, entitateen multzoaren erregimena sartu zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudian; Autonomia Erkidegoen araugintza-eskumenak handitu ziren Zenbait Garraiobidearen gaineko Zerga Berezian eta Zenbait Hidrokarburuen Txikizkako Salmentaren gaineko Zergan; Ikatzaren gaineko Zerga sartu zen Estatuaren tributu-sisteman; eta profesionaliei, nekazariei eta abeltzainei, kasu batzuetan, Hidrokarburuen gaineko Zerga itzultzea txertatu zen.

Beraz, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak, 2007ko uztailaren 30ean egin zuen 1/2007 bileran, Ekonomia Ituna aldatzeko erabakia hartu zuten. Horrela onetsi zen urriaren 25eko 28/2007 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatu zuena.

Era berean, aldaketa akordio horietan, komenigarri jo zen Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen arteko lankidetza hobetzea Nazioarteko Itunak betetzeko informazioa trukatzearen arloan; horretarako, beste atal bat erantsi zitzaien Ekonomia Ituneko 4. artikuluari.

Halaber, 2007an zazpi miloi euroa igo da eragiketa-bolumen adierazgarria. Ekonomia Ituneko seigarren xedapen gehigarriak kopuru hori bost urtean behin

En la disposición adicional segunda se prevén diferentes circunstancias por las que se procederá por ambas Administraciones, de común acuerdo y por el mismo procedimiento seguido para su aprobación, a la pertinente adaptación del Concierto Económico. Las circunstancias previstas son las siguientes: reforma en el ordenamiento jurídico tributario del Estado que afecte a los tributos concertados, alteración en territorio común en la distribución de competencias normativas que afecte al ámbito de la imposición indirecta, la creación de nuevas figuras tributarias e, incluso, la creación de nuevos pagos a cuenta.

En este sentido, desde la aprobación de la Ley 12/2002, de 23 de mayo, se produjeron una serie de novedades que requirieron la adaptación del Concierto Económico.

Tal fue el caso de la introducción del régimen del grupo de entidades en la normativa reguladora del Impuesto sobre el Valor Añadido, de las mayores competencias normativas para las CC.AA: en el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte y en el Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, de la introducción en el sistema tributario estatal del Impuesto sobre el Carbón y de la devolución del Impuesto sobre Hidrocarburos a profesionales, agricultores y ganaderos en determinados supuestos.

Por ello, la Comisión Mixta del Concierto Económico de 30 de julio de 2007, acordó la modificación del Concierto Económico. Dicho acuerdo fue aprobado por la Ley 28/2007, de 25 de octubre, por la que se modifica la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Asimismo, en el acuerdo de modificación, se consideró conveniente perfeccionar la colaboración entre el Estado y las Instituciones del País Vasco en materia de intercambio de información para el cumplimiento de los Tratados Internacionales, mediante la adición de un nuevo apartado al artículo 4 del Concierto.

En 2007 se aumentó también a siete millones de euros la cifra del volumen de operaciones, en aplicación de la disposición adicional sexta del Concierto, que determina la actualización

edo sarriagoa egunerautuko dela jasotzen baitu.

Gerora, Ituna egokitzea ekarri dute berriro ere zenbait berritasunek, bigarren xedapen gehigarriak eskatzen duen bezala.

Ondorioz, Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordearen 2014ko urtarrilaren 16ko Erabakiaren bidez, Ekonomia Ituna aldatzea onartu zen, eta, gero, apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bidez onetsi zen aldaketa (7/2014 Legearen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onartzan duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen da).

Azken urteotan sortutako zerga berriak ituntzea onartu zen aldaketa horrekin. Honako hauek dira zerga berriak: Jokojardueren gainekeko zerga, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gainekeko zerga, gastatutako erregai nuklearren eta energia nukleoelektrikoaren ekoizpenaren ondoriozko hondakin erradiaktiboak sortearen gainekeko zerga, gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradiaktiboak instalazio zentralizatuetan biltegiratzearen gainekeko zerga, kredituerakundeetako gordailuen gainekeko zerga eta berotegi-efektuko gas fluordunen gainekeko zerga.

Halaber, loteria-sarien gainekeko zerga berriaren atxikipena sartu zen, eta hidrokarburoen gainekeko zergaren tasa autonomiko batekin ordezkatu zen hidrokarburo jakin batzuen txikizkako salmenten gainekeko zerga.

Gainera, hobekuntza tekniko batzuk egin ziren: ez-egoiliarren errentaren gainekeko zergaren eta oinordetzen eta dohantzen gainekeko zergaren arteko konexio-guneak sortu ziren higiezinen gainekeo eskubideen dohaintzearako, eta zerga-kontsulten batzorde arbitralera bidaltzeko prozedurak ezarri ziren, besteren artean.

Ondoren, Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordearen 2017ko uztailaren 19ko Erabakiaren bidez, Ekonomia Ituna aldatzea onartu zen, eta, gero, abenduaren 29ko 10/2017 Legearen bidez onetsi zen

de dicha cifra al menos cada cinco años.

Con posterioridad, otras novedades han hecho de nuevo necesaria la adecuación del Concierto, tal y como exige la disposición adicional segunda del mismo.

En consecuencia, por acuerdo de la Comisión Mixta del Concierto Económico del 16 de enero de 2014, se aprobó la modificación del Concierto Económico, que posteriormente fue aprobada por la Ley 7/2014, de 21 de abril, por la que se modifica la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Esta modificación aprobó la concertación de los nuevos tributos creados en los últimos años: Impuesto sobre Actividades de Juego, el Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica, el Impuesto sobre la Producción de Combustible Nuclear Gastado y Residuos Radiactivos Resultantes de la Generación de Energía Nucleoeléctrica, el Impuesto sobre el Almacenamiento de Combustible Nuclear Gastado y Residuos Radiactivos en Instalaciones Centralizadas, el Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito, y el Impuesto sobre los Gases Fluorados de Efecto Invernadero.

Igualmente, se incorporó la retención del nuevo gravamen especial sobre premios de loterías, y se procedió a la sustitución del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos por un tipo autonómico del Impuesto sobre Hidrocarburos.

Además, se incorporaron algunas mejoras técnicas: puntos de conexión del Impuesto sobre la Renta de No Residentes, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones para donaciones de derechos sobre inmuebles, y los procedimientos de remisión a la Junta Arbitral de las consultas tributarias, entre otros.

Posteriormente, por acuerdo de la Comisión Mixta del Concierto Económico del 19 de julio de 2017, se aprobó la modificación del Concierto Económico, que posteriormente fué aprobada por la Ley 10/2017, de 29 de

aldaketa (10/2017 Legearen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen da).

Horretarako, lehenik eta behin, Estatuko araudian egin diren lege-aldaketa batzuetara egokitzen Ituna, aldaketa horiek Itunean sartu gabe baitzeuden. Erabaki zen, batetik, manu batzuk eguneratzea (besteak beste, talde fiskalei buruzkoak, Elektrizitatearen gaineko Zergari buruzkoak, ez-egoiliarrek PFEZA tributatzeko aukerari buruzkoak), eta, bestetik, delitu fiskalaren erregulazioa egokitzea, Zigor Kodean ezarritako araubide berriarekin bat etorri.

Halaber, erabaki zen Gasa, Petrolioa eta Kondentsatuak Erautzearren Balioaren gaineko Zerga ituntzea, zeina maiatzaren 21eko 8/2015 Legearen bidez sortu baitzen; lege horren bidez, Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatu zen, eta hidrokarburoen esplorazio, ikerketa eta ustiaketarekin loturiko hainbat zerga-neurri eta zerga-neurri ez direnak arautu ziren.

Bestalde, Tributuen kudeaketa eta administrazioen arteko koordinazioa hobetu zen: prozedura berri bat ezarri zen (beste neurri batzuen artean), zergadunaren eragiketak hasi aurretikо likidazio-aldiei dagozkien BEZaren kuota itzuliak erregularizatzeko; IFZA esleitzeko eta errebatzeko arauak erabaki ziren; administrazioen arteko elkarlana arautu zen, egiaztapen- eta ikerketa-jarduerei eta informazioa lortzeko jarduerei dagokienez, tributuak ordainarazteari begira; eta beste arau batzuk gehitu ziren administrazioen artean ordainarazteko eta ikuskatzeko eskumenak koordinatzeko, lotetsitako erakundeen edo pertsonen arteko eragiketak erregularizatzeko kasuetan eta eragiketak beste modu batera kalifikatzeko kasuetan (ez zergadunak deklaratu duen bezala), baldin eta ordainarazteko mekanismoa ezarri den zeharkako zergetan jasandako edo jasanarazitako kuotak aldatzea badakar horrek.

Hainbat zergaren konexio-puntuak erregulatzen dituzten manuak aldatzea ere

diciembre, por la que se modifica la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por ello, en primer lugar, se adaptó el Concierto a diversos cambios legislativos que se han producido en la normativa estatal y que estaban pendientes de su incorporación al mismo. Se acordó la actualización, entre otros, de los preceptos relativos a grupos fiscales, al Impuesto sobre la Electricidad, a la opción de los no residentes para tributar por el IRPF, así como la adaptación de la regulación del delito fiscal de acuerdo con el nuevo régimen establecido en el Código Penal.

Asimismo, se acordó la concertación del Impuesto sobre el valor de la extracción del gas, petróleo y condensados, creado por la Ley 8/2015, de 21 de mayo, por la que se modifica la Ley 34/1998, de 7 de octubre, del Sector de Hidrocarburos, y por la que se regulan determinadas medidas tributarias y no tributarias en relación con la exploración, investigación y explotación de hidrocarburos.

Por otra parte, se introdujeron mejoras en la gestión tributaria y en la coordinación entre Administraciones estableciendo, entre otras medidas, un nuevo procedimiento para la regularización de cuotas devueltas de IVA correspondientes a períodos de liquidación anteriores al momento en que se inicie la realización habitual de las operaciones del contribuyente, acordando las reglas para la asignación y revocación del NIF, regulando la colaboración entre Administraciones en relación con las actuaciones de comprobación e investigación y de obtención de información en orden a la exacción de los tributos e introduciendo nuevas reglas de coordinación de competencias exaccionadoras e inspectoras entre Administraciones en supuestos de regularización de operaciones entre personas o entidades vinculadas y de calificación de operaciones de forma diferente a como las haya declarado el contribuyente cuando ello implique una modificación de las cuotas soportadas o repercutidas en los impuestos indirectos en los que se haya establecido el mecanismo de repercusión.

Igualmente, se acordó la modificación de preceptos reguladores de los puntos de

erabaki zen. Besteak beste, Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergan, aldatu egin zen lan-etekinengatik konturako diru-sarrerak eta atxikipenak ordainarazteko araua, lanak edo zerbitzuak EAEn eta lurralte erkidean egiten direnean, lantokiaren irizpidea aplikatzea lehenesten dela; eta Sozietateen gaineko Zergan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan eguneratu egin zen Itunaren 14., 15., 19. eta 27. artikuluetan aipatutako eragiketa-kopuruaren atalase-zifra (7 milioi euro izatetik 10 milioi euro izatera); horrek balio du ordainarazteko eskumena mugatzeko eta zerga horiek egiaztatzeko, bai eta, Sozietateen Gaineko Zergaren kasuan, aplikatzekoa den araudia ere.

Bestalde, hobekuntza tekniko batzuk egin ziren konexio-puntuuen erregulazioan, zerga hauei dagokienez: Kreditu-entitateetako Gordailuen gaineko Zerga, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga berezia, eta Joko Jardueren gaineko Zerga.

Azkenik, procedura laburtu bat arautu zen batzorde arbitralera bidaltzeko, eta Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordearen eskumenak gehitu ziren.

Jarraian datorren II kapituluan, indarrean dagoen Ekonomia Itunak jasotako tributuen xedapenen berri emango da; zehazki, lurralte historikoetako erakunde eskudunek haien arautzeko eta ordainarazteko duten ahalmena adieraziko dira, tributuz tributu.

conexión en diversos impuestos. Entre otros, en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas se modificó la regla de exacción de las retenciones e ingresos a cuenta por rendimientos de trabajo cuando los trabajos o servicios se presten tanto en territorio vasco como en territorio común, dando prioridad a la aplicación del criterio del centro de trabajo; y en el Impuesto sobre Sociedades y en el Impuesto sobre el Valor Añadido se actualizó, pasando de 7 a 10 millones de euros, la cifra umbral de volumen de operaciones a que se refieren los artículos 14, 15, 19 y 27 del Concierto, que sirve para delimitar la competencia para la exacción y la comprobación de estos impuestos así como, en el caso del Impuesto sobre Sociedades, también la normativa aplicable.

Por otra parte, se introdujeron mejoras técnicas en la regulación de los puntos de conexión del Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito, del Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte y del Impuesto sobre Actividades de Juego.

Por último, se reguló un procedimiento abreviado de remisión a la Junta Arbitral y se ampliaron las competencias de la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa.

En el capítulo II siguiente, se detallan para cada tributo las disposiciones del Concierto Económico vigente en lo que respecta a la capacidad normativa y exaccionadora de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos.

